

EUSKARAREN ERABILERA  
SUSTATU ETA NORMALIZATZEKO  
U D A L ORDENANTZA

Abadiñoko Udala



**Abadiño**

Elizateko Udala

# Aurkibidea

---

Sarrera .....	3
1. Atalburua: Xedapen orokorrak.....	5
2. Atalburua: Euskararen normalizazioa udal administrazioan .....	7
2.1. Administrazio egintzak eta jarduerak .....	7
2.1.1. Udalaren errotulazio, iragarki eta seinaleak .....	7
2.1.2. Udal erregistroko agiriak .....	9
2.1.3. Administratuekiko harremanak .....	9
2.1.4. Instituzio eta erakunde ofizialekiko harremanak .....	10
2.1.5. Udalaren ebazpenak eta argitalpenak eta agiriak.....	11
2.1.6. Batzarrak eta aktak .....	11
2.2. Udal langileak eta udal atalak euskalduntzea .....	12
2.2.1. Langileen euskalduntzea eta trebakuntza .....	12
2.2.2. Hizkuntz eskakizunak eta derrigorrezko datak .....	12
2.2.3. Udalaren atal elebidunak eta euskara plana .....	13
2.2.4. Udal langileen eta zerbitzuen kontratazioa .....	13
3. Atalburua: Euskararen erabilera udalerrian .....	14
4. Atalburua: Udalaren azpiegitura .....	17
5. Atalburua: Xedapen gehigarriak.....	18
6. Atalburua: Xedapen indargabetzailea .....	19
7. Atalburua: Azken xedapena .....	20

## Sarrera

---

Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko, azaroaren 24ko, 10/1982 Oinarrizko Legeak<sup>1</sup> dioenarekin bat, euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza da eta, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofiziala . Beraz, bietako bat erabiltzeak ez du herritarren eskubideetan ezelango kalterik eragin behar, eta erkidegoko herritar guztiek dute hizkuntza ofizial biak jakin eta ahoz zein idatziz erabiltzeko eskubidea. Aurrekoaren haritik, Autonomia Erkidegoko erakundeei dagokie euskararen erabilera bermatu eta arautzea, baita beraren ezaguera ziurtatzeko behar diren neurri eta bitartekoak erabaki eta arautzea ere.

Bestalde, hizkuntza dela-eta inork bereizkeriarik jasan ez dezan, lege orokorrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri-aginteei ematen diete, haien eskumenen esparruan, hizkuntza ofizial bien erabilera bermatu eta arautzeko eskumena, jakintza eta normalizazioa bizkortzeko neurriak ezartzeko ahalmena eta baita hizkuntza eskubideak bermatzeko beharrezko neurri eta erabakiak hartzekoa ere. Horrela, Abadiñoko Udalak guztiz bermatuko ditu herritar guztien hizkuntza eskubideak eta ahaleginak egingo ditu euskara bertakotzeko, indartzeko eta abadiñar gizartea batzeko tresna izan dadin.

Abadiñoko Udalak, udal mailako herri erakunde garrantzitsuena den aldetik, eta euskara normaltasun sozialetik urruti dagoela kontuan izanik, eredugarri izan behar du hizkuntza normalkuntzaren arloan. Horretarako, bere eskuduntzen esparruan udal bitarteko guztiak erabiliko ditu euskararen normalizazioa bete-betekoa eta eraginkorra izan dadin.

Hortaz, "Euskararen ordenantza" honek bi helburu nagusi ezartzen dizkio herri mailako euskararen sustapenari: euskararen ezagutza areagotzen jarraitzea eta, aldi berean, neurriak hartzea euskararen erabilerak ere aurrera egin dezan, udal jardueraren eta udalerrriaren hizkuntza izatera iritsi arte.

Bestalde, udal honek bere egiten ditu Europako Kontseiluak onartutako *Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako Kartaren* hiru printzipio hauek: ezabatu egingo dira hizkuntza erregionalen edo gutxituen erabilera zein garapena alferrik galtzen utzi eta arriskuan jartzea xede duten neurri murriztaile guztiak, hizkuntza gutxituen aldeko neurri bereziak hartu behar dira eta hizkun-

---

1 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko oinarrizko Legea.

tza gutxituko hiztunen alde hartutako diskriminazio positiboko neurriak inoiz ezin dira gainontze-koentzako diskriminatzailatzat jo.

Azkenik, indarreko legeria oinarri harturik, Abadiñoko Udalak, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta hizkuntza egoera normalizaturantz abiatzeko beharrezko urratsak egin nahi dituela aintzat harturik, ontzat hartzen du *Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Ordenantza* hau indarrean jartzea, bertan jasutzen baitira, udalak, barne jardunbidean, herritarrekiko eta beste instituzio edo erakunde ofizialekiko harremanetan eta gizarte-bizitzan euskararen erabilera suspertzeko eta normalizatzeko bete beharreko arauak.

## 1. Atalburua: Xedapen Orokorrak

**1. artikulua.**- Euskara, Euskal Herriko berezko eta jatorrizko hizkuntza eta haren nortasun ezau-garri nagusia den aldetik, Euskal Herriaren eta, aldi berean, munduko gizon-emakume guztien ondare kulturalaren ukaezinezko atala da. Horregatik, abadiñar guztien elementu integratzailea izan behar da, eta hala izan dadin saiatuko da udala. Hortaz, Abadiñoko Udalak neurri egokiak hartuko ditu, euskara, Abadiñoko Udalean eta udalerrian, komunikazio-hizkuntza moduan normaltasunez erabilia izan dadin.

**2. artikulua.**- Euskara eta gaztelania, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak, Abadiñoko udalerrian eta Abadiñoko udal administrazioaren hizkuntza ofizialak dira.

**3. artikulua.**- Euskararen erabilerari dagokionez, Abadiñoko Udala indarreko legeriari eta euskararen ordenantza honetako xedapenei lotuko zaie, barne jardunbidean nahiz administratuekiko hartu-emanetan edo udalerriko ekimenetan.

Era berean, hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez –batik bat, euskararen erabilerari dagokionez–, udal zerbitzuak betetzen dituzten enpresek indarreko lege orokorrek eta ordenantza honek xedatzen dutena bete beharko dute, udalaren zerbitzua betetzean administrazioarekin nahiz herritarrekin sortzen diren harreman guztietan.

**4. artikulua.**- Abadiñoko Udalak euskararen aldeko hizkuntza politika lehenetsi, diseinatu eta garatuko du euskaraz bizi edo jardun nahi duten herritarren hizkuntz eskubide eta aukeraketa errespetatu eta bermatzeko, eta, aldi berean, udalerriko esparru guztietan euskararen berreskurapena eta normalizazioa areagotzeko.

**5. artikulua.**- Abadiñoko Udalak eremu bereizi biren arabera antolatu eta gauzatuko du bere hizkuntza politika: udal administrazioa eta udalerria. Udalak eremu bakoitzeko helburu, neurri, erritmo eta baliabiderik egokienak finkatuko ditu, hizkuntz egoera eta beharrianak aztertu ostean.

Abadiñoko Udalak administrazio barruko Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana jarriko du abian, *Euskara Plana*<sup>2</sup> alegia, euskara zerbitzu-hizkuntza izan dadila bermatzeko eta lan-hizkuntza bilakatzen joan dadin.

Udalerriari dagokionez, Abadiñoko Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)<sup>3</sup> jarriko du martxan euskara sustatzeko eta indartzeko eta herriko esparru sozial guztietara hedatzeko.

---

<sup>2</sup> Abadiñoko Udalaren EUSKARAREN ERABILERA PLANA 2010-2012, 2009ko ekainaren 30ean onartua udaleko osoko bilkuran

<sup>3</sup> Abadiñoko Udalaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia 2010-2012, 2009ko abenduaren 16an onartua udaleko osoko bilkuran

## 2. Atalburua: Euskararen normalizazioa udal administrazioan

**6. artikulua.**- Kontuan izanda euskarak zokoratze prozesua jasan duela urte askoan eta orain benetako berdintasuna lortzea dela asmoa, Abadiñoko Udalak, euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen duen indarreko legeriari jarraituz, Abadiñoko Udalaren administrazioiko hizkuntz normalizazio prozesuaren hiru oinarri nagusiak honakoak izango dira: administrazio egintza eta harremanen eskaintza euskaraz lehenestea eta bermatzea, lanpostuen hizkuntz eskakizunak eta derrigorrezko datak esleitzea eta betetzea, eta euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta garatzea.

### 2.1. Administrazio egintzak eta jarduerak

**7. artikulua.**- 86/1997 Dekretuarekin<sup>4</sup> bat, euskarak Abadiñoko udal administrazioaren zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izan behar du. Beraz, administratuei zuzenduriko edo administratuekin lotutako administrazio egintza eta jarduera guztiak euskaraz eskaini eta egiteko moduan eman behar ditu Abadiñoko Udalak. Horretarako beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta materialak jarriko dira.

#### 2.1.1. Udalaren errotulazio, iragarki eta seinaleak

**8. artikulua.**- Abadiñoko Udalak era zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen Udalaren zerbitzuetako errotulazio, iragarki eta seinaleak euskararen erabilpena ziurtatuko dute. Ele bietan agertzen direnean lehentasuna emango zaio euskarari HAEEK<sup>5</sup> proposatzen dituen gomendioei jarraituz. Udaleko zerbitzuetako errotulazio, iragarki eta seinaleak esaten denean honakoez dihardugu:

---

<sup>4</sup> 86/1997 Dekretua, Apirilaren 15koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri- administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.

<sup>5</sup> “Nola diseinatu testu elebidunak”. *Administrazioan euskaraz*, 44 zk., IVAP-HAEE

- a) Bulego eta langoletako errotuluak eta bestelako adierazleak.
- b) Udalaren orri, inprimaki, dokumentu guztien idazpuru eta e-mailen sinadurak.
- c) Gomazko zigiluak, seiluak eta antzeko tresnak.
- d) Udal langileen jantzietan txertatutako errotuluak.
- e) Udalaren ibilgailu, garraio eta makineriako errotuluak.

**9. artikulua.**- Kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreka izen guztiak, ofizialki, euskaraz idatziko dira eta halaxe agertuko dira errotulu eta plaketan.

Horietan guztietan ager daitezkeen toki izen guztien izen ofizialak udalak berak finkatuko ditu, betiere izenaren jatorrizko hizkuntza eta egungo idazkera-arauak errespetatuz. Alabaina, izen ofizialok ezarri aurretik, udalak aholkua eskatuko dio Euskaltzaindiari.

Halaber, hirigintza proiektu berrien ondorioz gerta daiteke hiri eta landa aldeko egoitza-gune, eremu, kale, plaza eta antzeko elementu berriak izendatzeko izen ofiziala ezarri behar izatea; halakoetan ere, udalak aholkua eskatuko dio Euskaltzaindiari.

**10. artikulua.**- Trafiko seinale, bide eta zeharbideen adierazgarriek eta, oro har, udalak jarritako herri-bideko iragarpen guztiek euskararen erabilpena ziurtatuko dute, betiere ulergarritasuna eragotzi barik eta nazioarteko arauetara jaramon eginez. Ele bietan joango direnetan lehentasuna emango zaio euskarari.

**11. artikulua.**- Euskaraz eta gaztelaniaz antzera samar idazten diren errotulazio, iragarki eta seinaleak euskaraz idatziko dira, esaterako: “merkatua/mercado”, “autobusa/autobus”, “aparkalekua/aparcamiento”, “ludoteka/ludoteca” eta holakoak.

Euskaraz eta gaztelaniaz antzera samar idatzi ez arren zabalera handia duten hitzak euskaraz joango dira marrazki edo irudiz baliatuta, testuaren argigarri izateko. Esaterako, “isilik”, “ez erre”, “irteera/sarrera”, “txakurrik ez”, e.a.



**12. artikulua.**- Abadiñoko Udalak udalerrri honetan geralekua duten garraio publikoak kudeatzen dituzten entitateei eskatuko die inprimaki, abisu, ohar eta bestelako komunikazioak euskaraz eta gaztelaniaz egon daitezen, betiere, lehentasuna euskarari emanaz, bai hizki-neurriari bai kokapenari dagokionean.

### **2.1.2. Udal erregistroko agiriak**

**13. artikulua.**- Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak agintzen duen legez, udaletxera sartzen eta udaletxetik ateratzen diren agiriak jatorriz idatzita dauden hizkuntzan inskribatuko dira udal erregistroan. Agiriak ele bietan idatzita badaude, euskaraz inskribatuko dira.

**14. artikulua.**- Udal erregistroak egiten dituen ziurtagiriak eta gainerako dokumentuak ele bietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak eskaria euskaraz egin badu. Kasu honetan, ziurtagiria euskaraz egingo da.

### **2.1.3. Administratuekiko harremanak**

**15. artikulua.**- Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Legeak arautzen duenarekin bat, udal administrazioarekiko harremanei dagokienez, Abadiñoko Udalak honako oinarrizko hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie bere administratuei:

- a) Udalarekin eta haren menpeko edozein erakunderekin euskarazko ahozko eta idatzizko harremanak izateko eskubidea.
- b) Bai udalaren argitalpenak bai udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan argitara ematen dituen jakinarazpen eta xedapen guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- c) Udalaren osoko bilkura eta batzarretan euskaraz egiteko eskubidea eta konpromisoa.
- d) Udalak antolatzen, kudeatzen edo bultzatzen dituen ikastaroak euskaraz egiteko eskubidea. Horretarako, lehenengo eta behin, lehentasunezkoa da ikastaroa emango duena elebiduna izan dadin. Gero, hizkuntza bietan egingo da eskaintza eta eskabidearen arabera jokatu da ikastaroa batean edo bestean emateko.

- e) Udalaren ardurapeko zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresekin ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izateko eskubidea.
- f) Udalak antolatzen, kudeatzen edo bultzatzen dituen foro eta kontseiluetan euskaraz egiteko eskubidea.
- g) Abadiñoako Udalak antolatzen dituen ekitaldietako aurkezpen publikoetan euskararen erabilpena ziurtatuko dela.
- h) Abadiñoako udal langileek herritarrei lehen hitza euskaraz egingo diete kasu guztietan.

**16. artikulua.-** Euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira pertsona fisiko zein juridikoentzako berri-emate eta agiri guztiak. Kasu guztietan euskarari emango zaio lehentasuna; hala ere, interesdunek euskaraz bakarrik jasotzea hautatzen badute, hala egingo da.

**17. artikulua.-** Udal administrazioak ontzat hartuko ditu pertsona fisikoengandik eta juridiko pribatuengandik jasotzen dituen euskara edo gaztelania hutsezko berri-emate eta agiri guztiak.

**18. artikulua.-** Udalak herritarrei bidalitako jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz joango dira. Herritarrak eskaria euskaraz egiten duenean euskaraz erantzungo zaio.

**19. artikulua.-** Herritarrek udalarekin harremana euskara hutsean izateko duten eskubidea bermatzeko neurriak hartuko ditu Udalak; besteak beste, erregistro bat sortuko du.

#### **2.1.4. Institutio edo erakunde ofizialekiko harremanak**

**20. artikulua.-** Abadiñoako Udalak dokumentazio guztia hizkuntza ofizial bietan bidaliko die herri-administrazio eta erakunde ofizialei. Erakunde ofizial hauetakoren batek eurekiko komunikazioa euskaraz izatea eskatuko balu, Abadiñoako Udalak halaxe egingo luke. Horrez gainera, euskaraz funtzionatzeko gaitasuna duten erakunde ofizial, elkarte eta bestelako entitateei igorritako dokumentazioa euskaraz baino ez zaie bidaliko. Bide horretan, Udaleko euskara zerbi-

tzuak aurreko paragrafoko ezaugarria betetzen duten entitateen zerrenda egingo du, entitateok hala eskatuta, eta, aldian-aldian, eguneratu egingo du.

Halaber, euskara ofiziala den eremuko erakunde ofizialek nahiz administrazio publikoek igorritako dokumentazioa gaztelania hutsean jasoko balitz, udalak agiri horiek elebitan bidaltzeko eskatuko du.

### **2.1.5. Udalaren ebazpenak eta argitalpenak eta agiriak**

**21. artikulua.**- Udal ebazpen, argitalpen eta agiri guztiak ele bietan argitaratuko dira. Esaterako: bandoak, ordenantzak, ebazpen eta erabakiak, iragarkiak, udalaren web-orria, aldizkariak, berripaperak, agiriak, mezuak, gidak eta antzeko argitalpenak. Dena dela, ele bietan publikatu arren kasu guztietan euskarari emango zaio lehentasuna. Hala ere, komunikazioetan euskara baino ez da erabiliko hartzaileak hala eskatu edota horretarako eraturako Erregistroan izena eman badu.

Komunikabideetara bidaltzen diren ohar, abisu eta informazioak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz igorriko dira. Euskara hutsezko komunikabideetara, ostera, hizkuntza honetan bidaliko dira beti.

Bestetik, euskara hutsezkoak ez diren irrati-telebistetara bideratutako iragarkietatik (spot-ak, kuñak...) %50, gutxienez, euskaraz emitituko dira.

### **2.1.6. Batzarrak eta aktak**

**22. artikulua.**- Abadiñoko Udalaren osoko bilkuretan, gobernu batzordearen batzarretan, eta informazio batzordeetan eta foroetan, partaide bakoitzak nahi duen hizkuntza ofiziala erabili ahal izango du, eta hala jakinaraziko du organoko arduradunak.

**23. artikulua.**- Abadiñoko Udalaren osoko bilkura, gobernu batzorde eta informazio batzordeetako deialdi eta aktetan euskararen erabilpena ziurtatuko da. Batzarrotako dokumentazioa ere euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko da, eta horretarako beharrezko neurriak hartu beharko ditu

udalak, kontuan izanda, betiere, Udaleko Euskara Planak ezarritako lehentasunak eta epeak administrazio barruko euskararen erabilera sustatzeari dagokionez.

Ohiko lan hizkuntzatzat euskara aukeratzen duten organoen bilera-deialdia, akta, ohar, abisu eta gainerako informazioak euskara hutsean idatziko dira. Gaztelaniazko itzulpena, eskatzen duten partaideei bakarrik igorriko zaie.

## **2.2. Udal langileak eta udal atalak euskalduntzea**

### **2.2.1. Langileen euskalduntzea eta trebakuntza**

**24. artikulua.**- Euskadiko Funtzio Publikoari buruzko Legeak eta 86/1997 Dekretuak xedatutakoa betez, Abadiñoko Udalak taxuzko neurriak hartuko ditu bere zerbitzuplean lan egiten duten pertsonak euskaraz jarduteko gaitasun egokia lor dezaten. Horretarako, udalak langileen euskalduntzea eta trebakuntza bultzatu eta erraztuko ditu. Langileak trebakuntza saioetan aritu edo euskara klaseetara joateak ez die hauei gainkargarik ekarri behar ez eraginik izan behar herri-tarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatean.

Udalak urtero eta udal langileen ordezkarien lankidetzaz, langileen euskalduntze plana onartuko du.

Halaber, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna ezarrita ez duten langileei, edo/eta euskara maila egokia ez dutenei, aukera eta erraztasunak emango zaizkie euskara ikas dezaten.

### **2.2.2. Hizkuntz eskakizunak eta derrigorrezko datak**

**25. artikulua.**- 86/1997 Dekretuak araututakoa betetzeko, Abadiñoko udal administrazioko lanpostu bakoitzari hizkuntz eskakizuna esleituko zaio eta, hala badagokio derrigortasun-data ere bai, betiere dekretu horrek eta ordenantza honek ezarritakoekin bat.

Lanpostuen hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-datak udalak urteko aurrekontuekin batera eman beharreko lanpostu zerrendako zehaztapanetan ageriko dira.

Lan Eskaintza Publikoan aterako diren lanpostuei dagokionez, udaleko euskara zerbitzuak lanpostu berrientzako hizkuntza eskakizunak eta, hala dagokionean, derrigortasun-datak proposatuko dizkio dagokion aginte-organoari . Udalak proposamena aztertu eta txostena eskatuko dio hizkuntza politikarako sailburuordetzari, halaxe ezartzen baitu 86/97 dekretuaren 23. artikulua.

### **2.2.3. Udalaren atal elebidunak eta euskara plana**

**26. artikulua.**- 86/1997 Dekretuari jarraituz, Abadiñoko Udalak euskararen erabilera normalizatzeko plana diseinatu, onartu eta gauzatu beharko du. Modu berean, administrazio atalen sailkapena egin eta, erakundearen hizkuntz helburuen arabera, administrazio atal elebidunak eta euskarazkoak izendatuko ditu.

### **2.2.4. Udal langileen eta zerbitzuen kontratazioa**

**27. artikulua.**- Udal langileen kontratazio politikaren bidez, Abadiñoko Udalak bultzada emango dio erakundeko hizkuntz normalizazio prozesuari. Horrela bada, 86/1997 Dekretuan ezarritako jendaurreko ataletan, gizarte mailako ataletan eta atal orokorretan edozein lanpostu sortzean, kontratu mota edozein dela ere, hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da aldez aurretik.

**28. artikulua.**- Atal berezietako lanpostuak betetzerakoan, udalak kasuan-kasuan erabakiko du derrigorrezko hizkuntz eskakizunik ezarri behar den ala ez. Horrela, lanpostuari derrigorrezko hizkuntz eskakizunik ezartzea erabaki ezean, euskara merezimendua izango da hautespen probetan, eta puntuazio osoan 86/1997 Dekretuak ezartzen duen portzentajea izango du, ondoko eran:

1. HE eta 2. HE: %10; 3. HE eta 4. HE: %20

**29. artikulua.**- Abadiñoko Udalak aldi baterako langileak kontratatu behar baditu, kontratazio-sistema edozein izanda ere, udaleko lanpostuen zerrendan maila bereko lanpostuei eskatzen zaien euskararen ezagutza bera eskatuko zaie aipatutako postu horiek beteko dituztenei, eta halaxe jasoko da kontratua esleitzeko Kontratazio Oinarrietan.

**30. artikulua.**- Oposaketa-aldiko froga eta azterketa guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egiteko aukera emango zaie hautagai guztiei, legeak esaten duenean oinarrituta.

### 3. Atalburua: Euskararen erabilera udalerrian

**31. artikulua.**- Abadiñoako Udalak beharrezko neurri eta bitartekoak jarriko ditu euskararen hedapen demografiko, geografiko eta funtzionala bultzatu eta lortzeko udalerrian. Bide honetan, euskararen erabileraren normalizazioaren aldeko ekimenak sustatuko ditu, bai udal jardun eremuan, bai udalerrian ere, bere ahalmenaren eta eskumenen baitan. Gainera, erraztasun guztiak emango dizkie herritarrei, udalarekiko harremanetan euskaraz normaltasun osoz jarduteko aukera izan dezaten; eta ahalik eta eperik laburrenean, udal-esparru guztietan eta udalaren ardurapeko jardun guztietan herritarren hizkuntza-eskubideak bermatuak izan daitezzen arduratu da.

**32. artikulua.**- Aurreko artikuluko helburua modurik sistematizatu eta eraginkorrean lortu ahal izateko, Abadiñoako Udalak udalerrian euskara berreskuratu eta normalizatzeko plan estrategikoa diseinatu, onartu eta garatuko du.

**33. artikulua.**- Abadiñoako euskaldunen gehi ia-euskaldunen kopurua, %73,4 (2006), esanguratsua izanik, esparru ugari lehenetsi behar dira euskararen normalizazioan. Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiko arlo hauetan gauzatu du, batik bat, bere hizkuntza-politika: irakaskuntzan, euskalduntze-alfabetatzean, familian, administrazioan, lan munduan (merkataritza eta ostalaritza barne), aisian, kirolean, komunikabideetan, kulturgintzan eta teknologia berrietan.

**34. artikulua.**- Abadiñoako Udalak ardura berezia hartuko du herriko elkarte, entitate eta partikularrek antolaturiko ekitaldietan hizkuntza eskubideak bermatu daitezzen.

**35. artikulua.**- Abadiñoako Udalak, euskara sailaren bitartez, diru-laguntza deialdiak esleituko ditu, hala deritzonean, euskararen erabilera sustatu eta bermatzeko<sup>6</sup>. Udalak euskara ikasi nahi duten herritarrei laguntzeko neurriak hartuko ditu. Neurri horiek baldintzatuko dituztenak diru-laguntza Ordenantza eta udal aurrekontuak baino ez dira izango.

---

<sup>6</sup> “Abadiño Elizateko Udaleko diru-laguntzak arautzeko Ordenantza Nagusia” (9. artikulua, “Onuradunen betebeharrak”).

**36. artikulua.-** Abadiñoko Udalak, hala deritzon, diru-laguntza nominatiboak edo izendunak esleituko dizkie euskararen irakaskuntza edo sustapenaren inguruan lanean diharduten komunikabide, talde, elkarte, erakunde edo entitateei. Diru-laguntza hauek lankidetzaren hitzarmenaren formulapean egingo dira, beti ere, indarrean dagoen diru-laguntzei buruzko araudiari jarraituz.

**37. artikulua.-** Abadiñoko Udalaren sail guztiek euskara-irizpidea hartuko dute kontuan dena delako plangintza, egitarau eta ekimenak prestatzerako orduan. Kultura, gazteria, hezkuntza, gizarte ekintza, berdintasuna, inmigrazioa eta kirol arloek euskaraz ere eskainiko dituzte tailer, ikastaro, hitzaldi eta holakoak. Era berean, ekintza iragartzen denean argi eta garbi adierazi behar da berau zein hizkuntzatan egingo den.

**38. artikulua.-** Udal instalazioak erabili, udal diru-laguntzak jaso edota udalarekin hitzarmenak dituzten elkarte eta entitateek euskararen erabilera ziurtatu beharko dute ekimena iragartzeko erabiliko dituzten euskarrietan zein ahozko komunikazioetan. Elebitasun hori gauzatzeko laguntza behar eta eskatzen dutenei aholkularitza eskainiko die Udaleko Euskara Zerbitzuak..

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren kasuetan ondoko arauok bete behar dituzte:

a) Hizkuntza idatziaren aldetik:

- Ezagunak edo nahiko erabiliak diren euskal hitz edo esaldiak euskaraz bakarrik idatzi.
- Euskaraz eta gaztelaniaz antzera idazten diren hitz eta esaldiak, euskaraz bakarrik idatzi.
- Testuak bi hizkuntzetan badaude, euskarari lehentasuna eman ez antolatuz, testuak jarraian aurkezten badira euskarazkoa goian idatziz, eta zutabetan egiten bada euskarazkoa ezkerrean kokatuta
- Testuak kaleratu baino lehen, Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkeztuko da kopia bat honek hizkuntza aldetiko oniritzia eman dezan.

b) Hizkuntza mintzatuaren aldetik:

- Bozgorailu, irrati, propaganda, ohar, publizitate, musika eta antzekoetan, mezuak euskara hutsez egiten ez diren kasuetan, euskarari lehentasuna eman egingo da.

**39. artikulua.-** Herri-lurra edo/eta udal instalazioak (frontoia, hesiak, oholtzak eta zernahi udal instalazio eta material) erabiltzeko baimena eskatzen duten instituzio zein enpresa pribatu eta norbanakoek, euskara edo euskara eta gaztelania erabiliko dituzte jarduera iragartzeko orduan eta baita berau gauzatzen denean ere. Hortaz, megafonia, sarrerak, eskuko programak, ekitaldiaren aurkezpena eta gainerako euskarri guztiak, ahoz zein idatziz, euskaraz behintzat egingo dira.

**40. artikulua.-** Herritarrekiko harremana oinarri duten kontratu administratiboen karatula eta berariazko klausuletan “Abadiñoko Udalaren administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete beharreko hizkuntza-irizpideak”<sup>7</sup> izeneko dokumentuan jasotzen diren baldintzak ezarriko dira. Gainera, Abadiñoko Udalak izenpetzen dituen kontratazio agiriak bi hizkuntza ofizialetan egongo dira idatzita.

**41. artikulua.-** Abadiñoko Udalak, Euskara sailaren bidez, euskararen erabilpena indartu eta errazteko kanpainak egingo ditu herriko bizitza sozial eta kulturalaren alor guztietan, bereziki merkataritza, lan arloa, kultura, aisia eta kirol elkarteetara zuzenduta. Kanpainen helburu nagusia sektore desberdinetako enpresa, saltoki eta era guztietako entitateek euskararen erabilpena zabaltzeko pauso sendoak ematea izango da.

Horretarako, herriko kultur, kirol, aisialdi eta gainontzeko elkarteetan euskararen erabilera indartzeko, Udalak laguntza eta aholkularitza tekniko eskainiko die Euskara zerbitzuaren bitartez, esaterako testu laburrak euskaratzeko nahiz zuzentzeko, dirulaguntzen inguruko aholkularitza emateko e.a. “Testu laburrak” esaten denean ulertu behar da folio bat baino luzeagoak ez diren dokumentuak, mota honetakoak izan daitezkeenak: herriko elkarte, talde eta entitateen inprimakiak, oharra, abisuak, komunikatuak, kartelak eta antzekoak. Abadiñoko Udaleko Euskara Zerbitzuak, ahal duen neurrian beti ere, dokumentu horiek zuzendu nahiz itzultzeko jasotzen dituen laguntza eta aholkularitza eskariei erantzun egingo die. Halere, laguntza hori ez da izango mugagabea denboran, araudi honen helburuetako bat baita elkarte bakoitza gai izatea -- elkarte bakoitzaren hizkuntza profilaren arabera zentzuzko epe baten barruan-- bere kabuz euskaraz sortu eta editatzeko, zatiz ala osorik, bere jaraduerarekin lotutako kartel eta dokumentu guztiak.

---

<sup>7</sup> Erabaki-proposamena, Abadiñoko Udalaren administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza irizpideei buruzkoa.



**42. artikulua.**- Abadiñoko Udalak, euskara sailaren bitartez, zerbitzu publikoa jarriko du martxan eta bitartekari lana egingo du herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. Horretarako, prozedura bat finkatuko du hizkuntza eskubideen urraketari konponbideak bilatzeko eta erantzukizuna duten EAEko zein estatuko gainerako administrazio eta erakundeen arteko lankidetzara bideratzeko. Herritarrek egindako kexa, iradokizun edo proposamenei 30 egun baino lehen erantzun die Udalak.

#### **4. Atalburua: Udalaren azpiegitura**

**43. artikulua.**- Ordenantza hau modurik eraginkorrenean gauzatu eta garatzeko beharrezkoak diren neurriak proposatu, aztertu eta abian jartzeko, Abadiñoko Udalaren barne organigrama honelaxe eratuko da: euskara batzordeburua, Euskara Batzordea, euskararen aholku batzordea eta euskara zerbitzua:

- a) Euskara batzordeburua euskararen berreskurapen eta normalizazioarekin zerikusia duten gaiez arduratzen den kargudun politikoa da. Bi zeregin nagusi izan behar ditu: bate-tik, udalak hizkuntz politikaz hitzartutako akordioak, hartutako erabakiak eta onartutako planak aditzera eman eta betearaztea, eta, bestetik, euskara batzordea dinamizatu eta bizkortzea. Hala nola, ordenantza honetan xedatutakoa betearazteko beharrezkoak diren neurriak hartzea.
- b) Euskara Batzorde Informatiboaren egiteko nagusiak dira: euskara arloan dauden plangintzen jarraipen politikoa egitea, osoko bilkuran aurkeztuko diren neurrien inguruko irizpena ematea, Batzorde Informatiboan egiten diren proposamenak jaso, aztertu eta bideratzea eta euskara zinegotzi eta gobernuari jarraipen politikoa egitea hizkuntza politikan hartzen diren neurriei buruz.
- c) Euskararen Aholku Batzordea hainbat gizarte esparrutan euskararen normalizazioaren alde diharduten pertsonak, taldeak, elkarteak eta gizarte-erakundeak osatzen dute. Bere egiteko nagusia, Euskararen Aholku Batzordearen funtzionamendu-arauetan zehazten denaren arabera, honako hau izango da: euskararen normalizazio eta sustapenari da-

gozkion arlokako egitasmoak eta plangintzak zelan ezarri, zelan koordinatu eta jarraipena egitea. Halaber, zelan hobetu proposatu eta adostea.

- d) Udaleko euskara zerbitzuak jendaurreko administrazio egintza eta jarduerak hizkuntza ofizial bieran agertzeko behar diren itzulpen eta testu-zuzenketekin arduratzeaz gain, administrazio nahiz udalerrri eremuetan udalak planifikatutako hizkuntz politikako neurriak antolatu, koordinatu, gauzatu eta balioztatu beharko ditu. Orobat, euskara zerbitzua udalaren aholkularitza zerbitzu ofiziala izango da euskararen normalizazioaren inguruko gai tekniko guztietan, hala soziolinguistikoetan nola estandarizazio prozesukoetan.

Euskara zerbitzua, Ordenantza honetan xedatutakoa gauzatu ahal izateko ezinbestekoa, giza eta material-bitartekoz hornitua izango da.

## 5. Atalburua: Xedapen gehigarriak

**Lehena.**- Udal aginte-organoen erantzukizuna da Ordenantza honetan nahiz 10/1982 Euskara-ren Erabilpena Arauzkutzeko Legean, eta 86/1997 Dekretuan agindutakoa bete eta betearaztea. Organo hauek Euskara batzordearen eta Euskara zerbitzuaren bidez, Ordenantzaren jarraipena egin eta egiten diren arau-hausteak bideratuko dituzte.

**Bigarrena.**- Ordenantza hau indarrean jartzen denean Euskara batzordeburua arduratuko da horren edukia udaleko sail, zerbitzu eta langile guztiei jakinarazteaz, bai eta ordenantzaren xedapenei buruzko argibideak emateaz eta hizkuntz normalizazioa aintzat hartzearen garrantzia ulertarazteaz ere. Hortaz, Udalak etorkizunean eman ditzakeen ebazpenek eta udal arlo edo organoek abian ipintzen dituzten egitasmoek ordenantza honetan jasotako aginduak errespetatu beharko dituzte.

Bestetik, Euskara batzordeburuak, legegintzaldi bakoitzaren hasieran, ordenantzaren edukien berri emango die udalbatza osatzen duten zinegotzi guztiei. Halaber, funtzionario eta lan-kontratadun langileei ere behar besteko azalpenak emango dizkie euren lanpostuei dagozkien hizkuntza eskakizunen ezaugarrien inguruan.

**Hirugarrena.**- Udala elkarlanean arituko da Ordenantza honen aplikazio eta garapenean eta hizkuntz politikaren arloan zeresana duten entitate eta norbanakoekin.

**Laugarrena.**- Abadiñoko Udalak, ordenantza honen edukiari dagokionean, indarrean dagoen Berdintasuneko araudia<sup>8</sup> betetzeko neurriak hartuko ditu. Horretarako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 legea, otsailaren 18koa, hartuko du oinarri. Hain zuen ere, lege horretako 3. artikuluko eta 16., 18.4. eta 23. artikuluetako printzipio orokorrak botere publiko guztiei eta erakunde pribatuei ere aplikatuko zaizkie kasu hauetan guztietan, Abadiñoko Udalarekin kontratuak edo lankidetzak hitzarmenak sinatzen dituztenean edo Udalak emandako laguntzen edo diru-laguntzen onuradunak direnean.

**Bosgarrena.**- Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Ordenantza hau indarrean jarri eta bi urteren buruan berraztertu egingo du udalak: emaitzak aztertu, ebaluatu eta, hala iritziz gero, beharrezko aldaketak proposatuko ditu.

Hala ere, lege orokorretan zein egoera soziolinguistikoan aldaketak gertatuz gero edota udalerriko euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuarentzat garrantzi handiko beste edozein arrazoirengatik, berrikuspena lehenago egin liteke.

## **6. Atalburua: Xedapen indargabetzailea**

**Lehena.**- Indargabetuta geratzen dira ordenantza honek xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen eta erabaki guztiak.

---

<sup>8</sup> 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

## **7. Atalburua: Azken xedapena**

**Lehena.**- Ordenantza hau indarrean jartzen den unetik bertatik Abadiñoko Udalak eskumena izango du xedapenok ezarri eta garatze aldera beharrezkoak diren arau, erabaki edo egitarau bereziak agindu eta sustatzeko.

**Bigarrena.**- Ordenantza hau onartu eta hurrengo hilabetearen barruan herritarrei beronen berri emango zaie, jakitun egon daitezzen udal arloan zein hizkuntza eskubide dituzten.